



Tutoretza akademikoari buruzko protokoloa

Justifikazioa

Fakultatean sartzen direnetik ikasketak amaitu arte ikasleei eman behar zaien arreta hobetzeko helburuaz sortu da irakasle **tutorearen** irudia.

Eginkizunak

Uste dugu irakasle tutorearen egitekoa giltzarria izan daitekeela funtsezkoak diren alderdi hauetan:

- 1.- ikasleak graduetara, ikastegira eta, oro har, unibertsitateko bizitzara moldatu eta egokitzea, eta
- 2.- ikasleari laguntzea curriculumaren diseinu eta garapenean, bitzita profesionalerako urratsak errazteko asmoz.

Irakasle tutorearen eginkizunak hiru arlo hauetan bil daitezke:

1.- Arlo akademikoa

- Unibertsitate sistemari buruzko informazioa ematea ikasle sartu berriei eta unibertsitateko bizitzara moldatzen eta egokitzen laguntzea.
- Esparru akademikoan izan ditzaketen arazoak konpontzen laguntzea eta aholkuak ematea.
- Laguntza ematea ikasleei curriculumeko ibilbideak aukeratzeko orduan, beren gogoko prestakuntza jaso dezaten (hautazko irakasgaiak, aukera askekoak eta abar).
- Tutoretza saioen erabilera bultzatu eta bideratzea.
- Ikasleek beren heziketa prozesuan daukaten erantzunkidetasuna sustatzea.
- Ikasleak bultzatzea bestelako jarduera akademikoetan parte hartzera: mugikortasun programak (Sokrates-Erasmus, Seneca), prestakuntza ikastaro osagarriak, enpresetako praktikak eta abar.

2.- Arlo pertsonala

- Ikasleek unibertsitateko bizitzan parte har dezaten bultzatzea, bai jarduera akademikoetan bai gestioko jardueretan, beren gizarte gaitasunak hobetze aldera.



- Kasuan kasuko zerbitzura bideratzea aparteko arreta eskatzen duten kasuak.

3.- Arlo profesionala

- Laguntza ematea proiektu profesionala aukeratzeko orduan.

- Lan munduan sartzeari eta laneko jardunari buruzko informazioa ematea.

Tutoretza Arte Ederren Fakultatean

Ikasturtea hasi aurretik, gradu bakoitzeko koordinatzaileak graduan parte hartzen duten irakasleen zerrenda eskatuko die sailei, tutore lanak egin ditzaten (hau da, lan horiek lehenagotik egiten ari diren irakasleak eta sisteman sartu berriak diren irakasleak). Ikastegiari atxikitako irakasle iraunkorrek izango dira, arduraldi osokoak.

Graduko Ikasketen Batzordeak esleituko dizkie tutoreak ikasle sartu berriei. Esleipena zerrendako ordenaren arabera egingo da, kontuan izanda tutore bakoitzak izango duen ikasle kopurua.

Uste dugu metodo egokiena dela esleipena modu jarraituan egitea ikasturteetan zehar: irakasle bakoitzari gehienez ere bi ikasle sartu berri ikasturte bakoitzean (aparteko kasuetan izan ezik). Irakasle bakoitzak ez luke izan beharko 10 ikasle baino gehiago. Dena den, kopuru hori titulazio bakoitzeko Graduko Ikasketen Batzordeak erabaki behar du, ikasleen eta irakasleen arteko erlazioa aldatu egiten baita titulaziotik titulaziora. Matrikulatutako ikasle bakoitzari tutore bat esleituko zaio, ikastegian ikasketak egiten ari den bitartean laguntasuna emango diona.

Komenigarria litzateke ikasturte bakoitzaren hasieran aztertzea aurreko ikasturteko tutoretza planean gertatutako gorabeherak, eta esleipena berriro egitea tutoretza behar bezain egokia izan ez bada. Irakasleek zein ikasleek aldaketa eska dezakete, beharrezko ikusiz gero; horretarako, tutoretzen, mailaren edo titulazioaren koordinazioaz arduratzen denarekin jarri beharko dira harremanetan.

Matrikula epez kanpo egiten duten ikasle sartu berriei eta titulazioko goiko mailetan sartzten diren ikasleei ere tutorea esleituko zaie, eta esleipen hori titulazioaren koordinatzaileak egingo du.

Irakasle tutoreek ikasturtea hasi aurreko astean izango dute esleipenen berri, bai eta tutoretza planarena ere (eginkizunak eta protokoloa jasotzen dituen dokumentu hau).



Ikasleei harrera egiteko jardunaldian fakultateko tutoretza sistemari buruzko informazio orokorra emango zaie ikasle sartu berriei. Komenigarria litzateke Graduako Ikasketen Batzordeak txostena edo jardueren memoria egitea ekaineko azken astean, ikasturtearen ondoren, tutoretza sistemaren nondik norakoan berri emateko. Txosten horiek zuzendaritza taldeari eta Kalitatea Bermatzeko Batzordeari bidaliko zaizkie, eta fakultateko tutoretza sistemen eraginkortasuna aztertzei aukera emango dute, bai eta sistema hobetzeko ekintzak proposatzeko ere, beharrezkoa izango balitz.

Faseak

Ikasle sartu berrien kasuan ikasleei harrera egiteko jardunaldian ekingo zaio tutoretza prozesuari. Ikasturtean zehar, berriz, bilerak egingo dira:

- Gomendatzen da **tutoreak bilera** bat egin dezala, ikasturteko lehenengo hilabetean, **bere ardurapean egongo diren pertsona guztiekin**. Pertsona horiek **nahitaez joan** beharko dute bilerara. Bilera horretan elkar ezagutzeko aukera izango dute eta lehenago ekimen honetan parte hartu duten goragoko mailetako ikasleekin jarri ahalko dira harremanetan ikasle sartu berriak.
- Matrikula lehenbiziz egin duten ikasleek dokumentu honi erantsitako **jarraipen fitxa** beteko dute aipatutako bileran. Fitxa hori lagungarri izango zaio tutoreari bere ardurapean egongo diren ikasle berriak ezagutzeko. Gainera, fitxa hori erabilia hobeto egin ahal izango du tutoretza lanen jarraipena, bai eta prozesuaren ebaluazioa ere amaieran.
- Tutoretza prozesuan parte hartzen ari diren irakasleek zein ikasleek beharrezko ikusten dituzten **elkarrizketa** guztiak egingo dira.

Irakasle tutoreari egindako kontsultaren bat bere jardueren eremutik kanpo geratzen bada, harremanetan jarri beharko da kasuan kasuko titulazioko koordinatzailearekin edo dekanotzako nahiz unibertsitateko orientazio zerbitzuekin, kontsulta behar bezala bideratzeko.

Ikasturtea amaituta, **azken bilera egingo dute irakasle tutoreek eta titulazioko koordinatzaileek**, ikasturteko tutoretza prozesuaren nondik norakoak ebaluatzeko. Irakasleek beren esperientzien berri emango ahal izango dute bilera horretan, eta tutoretza prozesuko praktika onen bateratze lana egin ahal izango da. Titulazioetako koordinatzaileen taldeak bilera horietan jasoko duen informazioa baliatuta, graduako ikasketen batzordeak azken memoria edo jardueren txostena egin ahal izango dute eta beharrezko ikusten dituzten hobekuntza ekintzak proposatu.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARTE EDERREN FAKULTATEA

FACULTAD DE BELLAS ARTES



TUTORETZA PLAN PERTSONALA

IKASLEAREN FITXA

Datuak

IZEN-ABIZENAK
NAN
JAIOTZE DATA
TOKIA
HELBIDEA
HERRIA
PROBINTZIA
PK
TELEFONOA
e-mail
IKASTURTEKO HELBIDEA
HERRIA
PROBINTZIA
PK
TELEFONOA
MUGIKORRA

IKASKETAK EGITEKO MOTIBAZIOA

AURREKO IKASTETXEA
SARRERAKO NOTA
IKASITAKO MODALITATEA
ZERGATIK AUKERATU DITUZU IKASKETA HAUEK?
IKASKETA HAUEK EGINDA LANERAKO ZEIN AUKERA IZANGO DITUZULA USTE DUZU?
ZER DAKIZU IKASKETA PLANAZ?
ZURE USTEZ ZEIN ZAILTASUN AURKITUKO DITUZU?
EGUNEAN IKASTEN EMAN AHAL IZANGO DUZUN DENBORA
BEKARIK BA AL DUZU?

UNIBERTSITATETIK KANPOKO JARDUERAK

LAN EGITEN AL DUZU?..... LAN MOTA ORDUTEGIA
IKASTAROAK ORDUTEGIA
KIROLAK ORDUTEGIA
BESTELAKOAK ORDUTEGIA

Erantsi ikaslearen argazkia



HIZKUNTZAK	IRAKURRI			ULERTU			MINTZATU		
	Oso ondo	Ondo	Hala moduz	Oso ondo	Ondo	Hala moduz	Oso ondo	Ondo	Hala moduz
EUSKARA									
INGELESA									
FRANTSESA									

OHARRAK



MATRIKULAKO IRAKASGAIK	DEIALDIK					
	1.a	2.a	3.a	4.a	5.a	6.a

DATA:

BAKARRIK/TALDEAN:

HELBURUA/ARAZOA/AHOLKUA:

HURRENGO BILERA:

DATA:

BAKARRIK/TALDEAN:

HELBURUA/ARAZOA/AHOLKUA:

HURRENGO BILERA:

DATA:

BAKARRIK/TALDEAN:

HELBURUA/ARAZOA/AHOLKUA:

HURRENGO BILERA: